



Ibilaldia

Aro barrian ikastolak loran

Bost ikastola, helburu bera

Ondarroa, Lekeitio, Durango, Elorrio eta Zornotzako ikastolek bat egin dute antolaketan

IBILALDIA antolatzeke bost ikastolak bat egin dute aurtentzen. Historia komuna dute: hasierako urte ilunetatik egungo ilusiora. Etorkizuneko erronka, ere berean, bakarra: Ibaizabal proiektua.

Ondarroako Zubi Zarra

Jose Mari Etxaburuk, «Bele-ro» ezizenez ezagunak, falangista sutsu batek zuzendutako eskola nazionala euskara irakastea lortu zuen. Euskara irakastea ez ezik, euskaraz ikastea ere ahalbidetu zuen. Beraz, Ondarroako harritzko zubi zaharra euskaltzale porrokatu talde baten amesleku eta borrokatoki bilakatu zen.

1967ko azaroaren 20an Zubi Zarretik igaro ziren lehen 30 ikasleak. Agurtzane Jaio andereñoaren ardurapean ireki zen ikastola Berriatuko Antzozolon, Ondarroako agintariek ez ziotelako hartarako baimenik eman.

Handik bi urtera 50 ikasle hartzen zituen jada Zubi Zarrak. 1970-71 ikasturtearen hasieran, hala ere, OHoko lehen ikasleek Zubi Zahar Herri ikastolan eman zituzten lehenengo urratsak. Has-tapenak, ordea, oztopoz bete-



MONIKA DEL VALLE

Elorrioko Txintxirri ikastolaren egungo egoitza.

rikoak izan ziren, ikastolak baimen ofizialik ez zuenez, Bilboko beste ikastetxeetan matrikulatu behar izaten baitzituzten Zubi Zaharreko ikasleak. Horretaz gain, Ira-

kaskuntzako ikuskari frankisten bisitaldiak saihesten ere ikasi behar izan zuten.

Nolanahi ere, argi izpi bat etorri zen Ondarroko euskaltzaleengana, Espainiako

Unión Nacional de Cooperativas de Consumo zeritzon elkartean Egunsentia kooperatiba legeztatu baitzuen Espainiako Lan Ministerioak, nahiz eta hantxe ikastola eraikitze-

ko erabili zen. Guardia Zibila, baina, Egunsentia kontsumo kooperatiba ez zelako susmoak zituen, eta horregatik, gau eta egun zaintzen zuen ikastola. Laster ohar-tu ziren haiek euskal kultura bultzatu nahi zuen herri mugimendua zegoela. Azkenean, 1972ko ekainaren 26an, hain zuen ere, Madrilgo Hezkuntza Ministerioak Colegio Zubi Zahar legeztatu zuen.

Lekeitioko Resurreccion M^a Azkue

Azkue jaio eta ehun urtera hasi ziren lekeitiarrak kanpo-tarren laguntza estimagarri-ri kasu egiten, euskarazko irakaskuntza berpiztu guran. Ana Mari andereñoak hartu zuen asmo hartan ardura, eta horri ekiteko etxe batean ezkutatu beharrean izaten zen. Hala ere, andereñoak, gurasoek, laguntzaileek eta herritar askok Casa Social zeritzon egoitza lortu zuten. Urte ugari igaro ostean, legalizazioa lortu zuen, eta Uribe ikastetxea eskaini zioten.

1976an kooperatiba osatu zuten sasoi hartako guraso, irakasle eta herritarrek. 1976-77 ikasturtean OHon hasitakoek osatu zuten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoa euskaraz. Ikastola berria eraikitzea erabaki zen orduan.

herriko
Taberna

EUSKAL KULTURA

ERREKA KALEA-ELORRIO-tlf: 94 623 16 72

Katxarro
SAGARDOTEGIA

Berezitasunak:
Txuletoi errea
eta arrain karta

Urte osoan irekita

San Fausto, 17
94 658 29 67
ELORRIO

Euskaraz bizi!

Gernikako arbola plaza
ELORRIO

LA PARRA

ARO BARRIAN
GAZTETXEAK LORAN

OKUPAZIOA

ELORRIXOKO
GAZTETXEA